



Trebakuntza 2010/06: BAT ETA BATZUK-EN DEKLINABIDEA

Zalantza handiak izaten ditugu askotan BAT eta BATZUK hitzak deklinatzean.

Hona hemen behin baino gehiagotan ikusi izan ditugun akatsak.

OHARRA: asteriskoz eta kurtsibaz idatzitako esaldiak gaizki daude, eta gainerakoak zuzen.

OHIKO AKATSAK

1. ***Batek** zein besteak idatzi akta, berdin zait.
2. ***Bat** oso azkarra da, bestea ez hainbeste.
3. ***Bati** bileretan hitz egitea gustatzen zaio, besteari ez.
4. ***Batzuek** ondo bizi izateko, gainerakoek lan egin behar.
5. ***Batzuk** inork egindakoa hankaz gora uzteko trebetasun handia dute.
6. *Herritar **batzuren** ustez, udaltzainak isun gehiago jarri behar luke.
7. ***Batzutan** idazkariak berak itzultzen ditu testuak.

ZUZENKETAK ETA AZALPENA

Artikulu zehaztugabeak bi forma dauzka: bata singularrerako (bat) eta bestea pluralerako (batzuk).

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uema.org

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
94-627.91.95
bizkaia1@uema.org

Done Petri 14, behea
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943-26.03.72
gipuzkoa2@uema.org



- Singularra: BAT (Gizon bat)
- Plurala: BATZUK (Gizon batzuk)

Bat hitzak bi deklinabide-mota ditu:

1. Bata **deklinabide mugatuari** dagokionean erabiltzen da, beste hitzari kontrajarria agertzen denean soilik.

- Bata etorri da; bestea, ordea, ez (ezagunak dira, badakigu nor diren).

2. Bestea, **deklinabide mugagabea** (bat), gainerako kasuetan erabiltzen da.

- Batek esan du hori (mugagabea, ez dakigu nor den bat hori).

Kasua	Mugagabea	Mugatua	Plurala
Nor	Bat	Bata	Batzuk
Nork	Batek	Batak	Batzuek
Nori	Bati	Batari	Batzuei
Noren	Baten	Bataren	Batzuen
Norentzat	Batentzat	Batarentzat	Batzuentzat
Norekin	Batekin	Batarekin	Batzuekin
Zerez	Batez	Bataz	Batzuez
Non	Batean, baten	Batean	Batzuetan
Nongo	Bateko	Bateko	Batzuetako
Nora	Batera	Batera	Batzuetara
Nondik	Batetik	Batetik	Batzuetatik

Erabilera okerrak dira, hortaz: batetan (egun batetan), batetako (herri batetako), batzu (lagun batzu etorri dira), batzutan (egun batzutan), e.a.

1. Ad. **Batak** zein besteak idatzi akta, berdin zait.
2. Ad. **Bata** oso azkarra da, bestea ez hainbeste.
3. Ad. **Batari** bileretan hitz egitea gustatzen zaio, besteari ez.
4. Ad. **Batzuk** ondo bizi izateko, gainerakoek lan egin behar.

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uema.org

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
94-627.91.95
bizkaia1@uema.org

Done Petri 14, behea
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943-26.03.72
gipuzkoa2@uema.org



5. Ad. **Batzuek** inork egindakoa hankaz gora uzteko trebetasun handia dute.

6. Ad. Herritar **batzuen** ustez, udaltzainak isun gehiago jarri behar luke.

7. Ad. **Batzuetan** idazkariak berak itzultzen ditu testuak.

Azalpenotatik zerbait ulertu ez baduzu edo gehiago sakontzeko ariketarik nahi baduzu, jarri harremanetan UEMAko teknikariek:

- Telefonoz: **943260372 (Imanol)** eta **946279195 (Iratxe)**
- Posta elektronikoz: gipuzkoa2@uema.org (Imanol) eta bizkaia1@uema.org (Iratxe)

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uema.org

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
94-627.91.95
bizkaia1@uema.org

Done Petri 14, behea
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943-26.03.72
gipuzkoa2@uema.org